

Maialen Lopez Lasa

B maila • 1 saria

Urtero lez, hementxe naukazue. Ikatzaren usainez, amaren barrenetik bizi izan ditut milaka istorio, izarrengan utzi ditut mila eta bat abentura, Parisera bidaiatuz Mona Lisaren irri iluna ere ezagutu dut.

Aurten, amodio gutun batzuk idatzi ditut, Deserriko Kontradantzan murgildurik. Hainbeste eta hainbeste dira bidean geratu diren hitz segida horiek... Ezen lau lerro hutsetan, ezingo liteke sekula jaso ez dituzten haien sentipen izpirik ere aditzera eman. Nire birraitonak nire amari kontatutako istorioa duzue hau, berak bizitako istorio mikatza... Izan bedi hau haren ondarearen zati idatzia, nire partez zuentzat eskainia.



ENE MAITE POLITA

Ez dut sekula herriminik sentitu, ez dut inoiz ikusi ezin dudana aberri batengatik malkorik isuri... Dena den, eskuartean begizta gorritz lotutako gutun sorta hau irakurtzen hasteak nolabaiteko ezinegona piztu du nigan. Nostalgia ote?

El Dueso, Santoña 1938

“Ene maite polita:

Aste bat besterik ez daramat zuengandik urrun, 7 egun luze, 7 gau ilun, 7 gau hotz.

Kamionetaz eginiko bidaia neketsu baten ondoren, azkenean, iritsi ginen gure helmugara. Hamazazpi lagunek osatzen genuen atxilotuen taldea ...koitaduen karabana hura: nire lehengusu Luis, Iturbeltzeko Josean eta Pagadiko Eusebio ere nirekin zeuden. Haiek ikusteak poztu egin ninduen, hori esaterik balego.

Diotenez, zortea izan dugu, izan ere “El Dueso” kartzelarik hoberenatarikoa omen da: itsasertzean kokatuta dago eta nabarmena omen da bai honen soinua eta baita kresalaren usaina ere. Oraindik, usain hori ez da nigana iritsi... Antza, gertu bazaitut soilik antzeman dezaket ur gaziaren lurrina.

Zazpi gau hauetan lehena pabilioi hotz batean igaro genuen, denak elkar pilatuta, bata besteari ematen zion beroa gal ez zedin. Egunak argitu zuenean, kartzelaren benetako itxuraz jabetu nintzen. Presondegia harresi luze batez inguratuta dago, lau paretetatik lau desberdinak dituen. Lauzapabost pabilioi ditu, noizbait nire antzera hona iritsiko direnen zain daudenak.

7 egun hauetan hemen egoteko zergatiaz pentsatu dut; baita Luisi eta Eusebiori galdetu ere. Nik behintzat ez dut uste inori kalte egin diodanik, baina zoriak niretzat hau gordeta badu, hala beharko du izan.

Dena den jakizu, itsasoa ezin usaindu horrek zu ikusi ezin horren antzera mintzen nauela.

Beti zure: Markos "

Irun, 1938

" Ene laztana:

Ez dakit zenbat aldiz hasi naizen gutun hau edo antzekoren bat idazten, gutxienez bosgarrena izan behar du honek. Izan ere, hitza idazten hasi orduko malkoak erori eta orban beltz bat uzten dute paper gainean. Ez dakit non zauden ezta nora eraman zaituzten, baina paper zakar honetan idatzitako hitz hauek zuregana iritsiko direla ziur nago. Hain da sakona gure maitasuna eta hain handia zuk utzitako hutsunea...

Eraman zintuen kamioneta haren antzeko gehiagok ere zapaldu dute herria azken egunotan eta beteta atera dira handik.

Beldurra nabari da. Herenegun aita agertu zen etxeko atarian. Hura ere beldur zen. Hain dabil triste ama hil zenetik. Atzetik segika, nire anai zaharra ere sartu zen etxeko atarian. Mezua argia bezain laburra izan zen; harekin zekarrena aldiz, ez zen inondik inora gozoa. Frantziara ihes egitea beharrezkoa zen, hain urrun eta hain hurbil suertatzen zitzaigun herrialdera.

Argi utzi nion aitari, nik ez nuela ihes egin nahi; ez nuela gure etxea utzi nahi; zu agertuz gero... etxea hutsik, eta hotz aurkitu ez zenezan...

Baina aitak erabakia hartua zuen jada...

Irungo etxola batetik idazten dizut, beraz.

Zurea beti:Maialen "

El Dueso, Santoña 1938

" Ene maite polita:

Kontraesankor gerta badaiteke ere, bizirik mantentzen nauen zure irudiaz ahaztu nahi nuke zenbaitetan, hark dakarkidan tristura baretzeko bada ere.

Ezer ez da erraza hemen. Ezer ez da jada arrotza. Baina, arrotz ez den bizileku hau, ez da etxe eta ez da inoiz etxe izango, zu ez baitzaude bertan. Etxeko subajuaren garra faltan somatzen dut, oihalen labanda usaina, ogi egin berriaren zaporea... Zu zaitut faltan.

Etekin handia atera diet patata zakuei, hauek lastoz betez nire ohea dena hobetzen saiatu naiz, erosotasunak loaldi motzak behintzat ekar ditzan. Gainera, zaku hariz espartin pare bat josi dut. Papera dudan arren (idazten ez duten haiei esku artetik kendutakoa), arkatzik ez dut ia. Beraz, baliteke irakurtzen duzun hurrengo gutuna ikatz-ziri soilez idatzia egotea.

Gauean, kandela xume baten argiaz, soilik, zure argazkiari so igarotzen ditut orduak. Gogoratzen al duzu Iturburuko iturrian ateratako argazki hori? Iruñatik etorri zen argazkilari batek egin zizun. Ederki gogoratzen dut, lore lilaz jositako soineko zuri hori zeneraman. Anpolai moduko ezpain gorriak. Irrifartsu zeunden. Zetorkigun hura igarri gabe, hain ginen zoriontsu... Zin dagizut, bueltatuko dizudala, bueltatu irri hori.

Beti zure: Markos "

Bordele, 1938

“Ene laztana:

Non zaude? Ez dut zure berri eta ez dakit eskutitz hau bera noizbait esku artean izango duzun. Baina, beharbada jada galdu duzun esperantzak narama gaurkoan ere, hemendik, Bordeletik, gutun hau nonbait hara bidaltzera.

Bordelera bidea ez da erraza izan. Ilargi beteko gau batean atera ginen Irundik, isil-isilik gindoazen mendizerran barrena, nire anai zaharrena lagun nuela. Ilargi betea bezain handia zen gure pena.

Ez ditut inoiz gerrak barkatuko, dena odoltzen duten gerrek, muga zeharkatzera bultzatu gaituzten gerrek.

Muga zeharkatzera gindoazela nire anaia makurtu egin zen, uztera gindoazen lurra, aberria, atsekabez muxukatzera. Nik, oster, atzera begiratu nuen, aberri hori bera azken aldiz ikusi nahian. Momentu hartan bertan, nire sabelean herrimina ez zen zerbait somatu nuen, bizi berri baten taupada. Zurea eta nirea.

Zurea beti:Maialen ”

El Dueso, Santoña, 1939

“ Ene maite polita:

Azken aldian ez bezala, izkin bakarti batetik idazten dizut. Hotz den garaia igaro da jada, heriaren garaia. Asko dira formol artean, izara zaharretan bildu dituzten arimak. Haiek diote, biriketako gaitz batek eraman dituela eztul gorri artean hiltzera. Etxetik kanpo egote horren minak eraman dituela diot nik, ni ere egon bainaiz horrela.

Ni ere eraman ninduten atzeko atari hartara eta izara eta formola iritsi artean han utzi ninduten, etzanda. Hantxe ikusi ninduen gizaseme hark eta nire bizi hatsa somatu. Geroztik, nire aingeru guardakotzat dut bera. Hari zor diot izango naizena.

Nire susperraldi egunetan, nire ondoan egon da. Liburuak irakurri dizkit eta kartzelan gertatzen denaren berri ematen. Bere bizitzari buruz ezer gutxi dakit: Ordiziako aguazila omen zela eta nazionalak sartu zirenean preso hartu eta “El Duesora” ekarri zutela besterik ez. Ez dakit ezkondua den edo umerik duen ere...

Sukar-ametsetan nire ondoan zintudan. Zure arnasa entzun nezakeen nire lepoan eta zure hatzez laztantzen ninduzun...Orain, bizidunen munduan ez zaitut hemen.

Non zaude... Zin egin diot nire aingeru guardakoari bizitzari gogor eutsiko diodala zu ikusteko besterik ez bada... zu laztantzeko... zu besarkatzeko...

Beti zure: Markos ”

Paris, 1939

“ Ene laztana:

Non zaude? Ez dut zure berri.

Orain dela hilabete iritsi ginen Parisera. Paris, argiaren hiria dela diote, haatik nik ez dut argi hori oraindik ikusi, nire begirada malkoz lausotuta baitago eta nire bihotza hunkiturik.

Arratsalde euritsu batean iritsi ginen Parisera, hiru eguneko bidai neketsu baten ondoren. Hiriaren kanpoaldean kokatutako pisutxo ziztrin batean eman ziguten ostatu. Agidanez,

Bilbotik Parisera etorritako errepublikar baten pisua omen zen (aitaren lehengusu txikia). Gure etxea izango zen hura hezea eta iluna zen, kandelaz argitua eta ia leihorik gabea. Sukaldea beste bi familirekin partekatzen dugu eta logela anaiarekin. (Nire egoera dela eta nik ohean egiten dut lo eta berak lurrean alfombra saretu baten gainean). Leku hau denbora gutxirako dela pentsatu nahi dut, baina anaiak itxaropen ustelik ez egiteko esaten du...

Janaria ugaria ez denez berehalaxe ohitu gara frantziar sukaldaritzara eta gogoz jaten dugu. Txokolate zati bat edo beste ere dastatzeko zortea izan dut, Iruñako gozotegi hartakoa oroitaraziz

(hain duzu gustoko txokolatea....).

Bizitza berri bat daramat nigan, geroz eta taupada ozenagoz aditu daitekeen bizitza. Ezagutu gabe maitatzen hasi naizen bizitza. Mingarria bezain maitakorra zaidan zure oroitzapenaren lekuko bakarra. Bizitza berri horrek ematen dit, zu gabe aurrera jarraitzeko indarra.

Zurea beti:Maialen "

El Dueso, Santoña, 1939

"Ene maite polita:

Gutun hau ikatz-ziriz idatzia dago, zaindarien eguerdiko ogitartekoa biltzen duten paper batean. Segundok lortu du niretzat (beste bat berarentzat). Segundo da nire aingeru guardakoaren izena. Nire lagun min bakarra da "etxe" honetan. Gizon arrunta baina, azkarra da; ixila baina, alaia; zintzoa baina, zuhurra.

Elkarrekin irakurtzen dugu, eta asko, askatasunari buruz, bihozgabeko gerrate honi buruz eta aspaldiko maitasun istorioei buruz ere. Batzuetan, gauza izugarriak kontatzen ere badaki: herenegun, gauerdian, hamalau preso "paseo" bat ematera eraman omen zituzten eta geroztik, inork ez du izan haien berri. Berak dioenez, tiro hotsak entzun ziren harresiaren alde izkutuan...

Lehengo batean izarrak zer izen zuten erakutsi zidan Segundok: Artizarra, (arratsean ateratzen den lehenengo izarra, izarrik argitsuena...). Hartz handia (gurdi handi itxura duena), ipar izarra (iparralderantz begiratu eta han ikusten dena).

Orain, gau izartsuetan nire zeldako leihatilatik izar horiek bilatzen saiatzen naiz, Artizarra besterik ez bada ere... Bertan, zure aurpegia agertuko den itxaropenarekin. Lortzen ez dudanean, Iturburuko argazki abaildua atera eta loak hartzen nauen arte begiesten dut. Zure hustunea hainbeste nabari dute...hain zaitut maite...

Beti zure:Markos "

El Dueso, Santoña, 1939

"Ene maite polita:

Atzo, Segundok inoiz baino indartsuago besarkatu ninduen kartzelari baten ahotsean nire izena entzun genuen artean. Beste hamar izen ere entzun nituen...

Gutun hau azkena izan litekeela onartzear nago... joan diren egunen baitan egin ez dudan gauzen artean bat egin nahiko nuke beraz, inoiz egin ez dudan bezala, nahi dudalako soilik, bihotzez azken gutuna izan daitekeen hau idaztea. Paper xistrin honen gainean erortzen uztera noan lau hitz xumeak noizbait irakur edo eskutartean izan ditzazun bederen...

Beharbada zerura joango naiz edo nork daki! Baina ez naiz esku-hutsik joango. Barka nazazu zure muxuak lapurtzen baditut, zure laztanak, zure besarkadak nireak bailiran eskutatik kentzen badizkizut... Barka nazazu zure irribarreak eta isil-mandatuak nirekin eramaten

baditut. Poltsikoan sartzen ditut bidelagun izango ditudan zure ilearen lurrina, zure azalaren zaporea eta zure ahots gozoa. Guztiak nire altxor izan daitezen...

Zu gera zaitez gure istorioarekin, bizitakorekin, izan ez den amaiera zorionsuarekin. Baina ez egin negarrik laztana, munduak ez du eta malkoen beharrik.

Beti zure: Markos "

Paris, 1939

" Ene laztana:

Non zaude? Ez dut zure berri.

Amets goxoek estalita lo dago gure txikia, itsasoen koloreko begiak itxi zaizkio gaurkoz. Eta bihar eguzkia ateratzearekin bat egingo dit berriro irri, eduki ahal izango duen aitarik hoberenak besotan hartzeko zain dagoelarik.

Galduta nago Parisen. Zeharo galduta. Noraezean, ihes betean haizeak daraman hostoa bezala. Nire arimak ez du pausarik Parisen. Nire gorputza Parisen dago, baina nire arima Euskal Herrian. Zer gertatzen ari ote da Euskal Herrian orain? Zer gertatu ote zaie bertan utzi ditudan etxekoei?.

Leihoan jarrita, kalera begira, ez dut ezer ikusten... Herriminez bizi irauten saiatuko naiz, herrimina ni hiltzen saiatuko bada ere... Nigatik, zugatik eta batez ere hemen, nire besoetan dudan bizi berri honengatik...

Zurea beti:Maialen "

Villafranca de Oria, 1941

"Adiskide ezezagun maitea (Maialen):

Atzo, azkenean, utzi nuen El Dueso, atzo, berriro besarkatu ahal izan nituen etxekoak, eta gerra krudel honek utzitako hondatzeak nire begi niniz ikusi. Nire arroparekin batera, zatar paperean bildutako hainbat eskutitz eman zizkidan beharbada alhaduraz itota zegoen kartzelari batek.

Ez dakit zein izango den gutun guzti hauen behin betiko norakoa, baina zin dagizut mundu krudel hau utzi baino lehen, eskutitz guzti hauek nonbait hara maitasunez norbaitek irakurtzeko desio dudala azken. Izan daitezela betirako zureak.

Segundo Lozares "

Rue de la Rosiers,Paris 2012

Ez nekien orain dela bi egun zatar paperean bildurik zetorren "Basquitos y Neskitas" kaxa hartako edukiak nire bizitza erabat aldatuko zuenik. Zatar paper hartan idatzitako igorlearen helbideak Euskal Herriko Ordizia herrira eramango ninduela.

Eskutitz guzti hauek irakurle bakarra neu naiz. Badakit ez direla benetako helbidera iritsi baina, jakin badakit ere letrak ez direla alperrik ahantziko izan ere, maitasunez idatziak baitaude.

Jakin baitakit gutun hauen baitan bazela nonbait ikatz-ziriz idazten zuen gizonik; eta etxetik urrun, herbestean, esperoan zegoen emakumerik.

*"Maite genituen gauzengatik erori ginen preso,
baina gure maitasuna oraindik ez dago preso"*
(Ken 7)